**OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA OSASUN SAILA**

**Zk-927**

29/1998 DEKRETUA, otsailaren 24koa, Euskadiko Autonomia–Elkarteko Herri–Arduralaritzaren lanarigo, ondare eta ekintzapideari daragieten arriskuen azterketa, balio-neurketa, eraentza eta bermeari buruzko Dekretua aldatzen duena.

Administrazioaren ondarean, jardueran eta langileengan eragin ekonomikoa sortzen duten arriskuen analisia, balorazioa eta, beharko balitz, horien aseguramendua, ondare- eta ekonomia–kudeaketa alorreko neurri egokitzat jotzen ditu Administrazio honek.

Beraz, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Herri-Ardurlaritzaren lanarigo, ondare eta ekintzapideari daragieten arriskuen azterketa, balio-neurketa, eraentza eta bermeari buruzko urriaren 22ko 346/1985 Dekretuan arautu egiten dira alor horretan eskumendunak diren organoak eta jarduerarako prozedura. Irizpide batasuna dakarren kudeaketa zentralizatuko sistema aukeratu da; izan ere, horrela baitio hitzaurrean. Jarrera hau da «horretaz Jaurlaritzak duen benetako politika»ren oinarria.

Duela gutxi zuzenbide pribatuko ente publiko bihurtu da orain arteko erakunde autonomoa zen Osakidetza. Ondorioz, euskal sanitate publikoari daragioten arriskuei buruzko eskumena Ogasun eta Herri Administrazio Sailari eskualdatutako eskumenetatik kanpo gelditu da, jaso ere horrela jasotzen delako 346/1985 Dekretuko 1. atalaren 2. eta 3. idazatietan.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen onartzen duen 1/1997 Legegintza Dekretuko 17. atalean eta 13. atalean Jaurlaritza habilitatzen da zuzenbide pribatuko ente publikoen jardute-erregimena alda dezan, nahiz eta horrek giza-baliabideei eta baliabide materialeei buruzko eskumenei eragin.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Osasun sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko otsailaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Lerroalde berri bat eransten zaio Euskadiko Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzaren lanarigo, ondare eta ekintzapideari daragieten arriskuen azterketa, balio-neurketa, eraentza eta bermeari buruzko 346/1985 Dekretuko gehigarrizko xedapenari, honako testu honekin:

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

**N°-927**

DECRETO 29/1998, de 24 de febrero, de modificación del Decreto sobre análisis, valoración, gestión y garantía de los riesgos que afectan al patrimonio y actividad de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El análisis, valoración y, en su caso, aseguramiento externo de los riesgos con incidencia económica que soporta el patrimonio y la actividad de la Administración y de su personal es considerado por esta Administración una adecuada medida de gestión patrimonial y económica.

Por ello, el Decreto 346/1985, de 22 de octubre, sobre análisis, valoración, gestión y garantía de los riesgos que afectan al personal, patrimonio y actividad de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma, regula los órganos competentes y procedimiento de actuación en esta materia, optando por un sistema de gestión centralizada que -como dice su preámbulo- reporta una unidad de criterio fundamento de una «auténtica política del Gobierno al respecto».

La reciente transformación de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud en ente público de derecho privado (anteriormente organismo autónomo) ha supuesto que la competencia en relación con los riesgos que afectan a la sanidad pública vasca queda fuera de la atribución competencial al Departamento de Hacienda y Administración Pública prevista en los apartados 2 y 3 del artículo 1 del Decreto 346/1985

La Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco (Texto Refundido aprobado por Decreto legislativo 1/1997), en su artículo 17 en relación con el artículo 13, habilita al Gobierno para que por Decreto realice modificaciones del régimen de funcionamiento de los entes públicos de derecho privado afectantes, incluso, a sus competencias en relación con los medios personales y materiales.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de febrero de 1998,

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se añade un nuevo párrafo a la disposición adicional del Decreto 346/1985, de 22 de octubre, sobre análisis, valoración, gestión y garantía de los riesgos que afectan al personal, patrimonio y actividad de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el siguiente texto:

«Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoko langileei, ondareari eta jarduerari daragieten arriskuei buruz, 1. ataleko 2. eta 3. idazatietan jasotako eginkizunak organoek beteko dituzte; eta hori, EAEko Administrazio Publikoko organo eta enteei, euren jardunean zuzenbide publikoari atxikitakoei alegia, daragieten arriskuetarako aurrikusitako arauekin bat etorriz.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko otsailaren 24an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

«En relación con los riesgos que afectan al personal, patrimonio y actividad del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, las funciones contempladas en los apartados 2 y 3 del artículo 1 serán ejercidas por los órganos y con arreglo a las normas previstas para los riesgos que afectan a los órganos y entes de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi sometidos en su actuación al Derecho Público.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de febrero de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA

### Zk-928

135/1998 ERABAKIA, otsailaren 4koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan estatutupeko langile moduan goi-mailako teknikarien lanbide–taldeko goi-mailako tituludunaren kategorian sartzeko hautaprobetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen duena.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 3143/1997 Erabakiaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan estatutupeko langile moduan goi–mailako teknikarien lanbide–taldeko goi-mailako tituludunaren kategorian sartzeko.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-928

RESOLUCIÓN 135/1998 de 4 de febrero, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra al tribunal calificador de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Titulado Superior del Grupo Profesional de Técnicos Superiores con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 3143/1997, de 15 de diciembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Titulado Superior del Grupo Profesional de Técnicos Superiores con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.